



## SALEROSKETAKO ELIKAGAIEN KALITATEA KONTROLATZEKO 2016 URTEKO PLANARI BURUZKO TXOSTENA


Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Ikuskaritzak honako alde hauek aztertzen ditu: nahitaezkoa dokumentazioa, trazabilitatea (...), produktuen osaera eta kalitatea, eta etiketa (arreta berezia ematen zaie nahitaezko adierazpenei, bai orokorreari bai espezifikoari). Batzuetan, erregistro administratiboak ondo eramanda dauden begiratzen da eta laborategian aztertzekeo lagin ofizialak ere hartzen dira. Bereziki saiatzen gara aurreko ikuskapenetan detektatutako irregulartasunak zuzentzen diren ondo begiratzen.

2016an, Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Ikuskaritzak 263 lagin erregelamentario hartu zituen kalitate-parametroak zehazteko. Glutenari buruzko kanpaina espezifikoan 19 ikuskapen egin zituen. Halaber, kontroleko 23 egiaztapen egin ziren: horietatik 7 "in situ", bertan, egin ziren, eta gainerako 16, agiriaren bitartez.

Kontrol horien emaitzako komunikatzeko, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak 278 irregulartasun-komunikazio bidali zituen eta ikuskatutako operadoreei esan zieten zenbait neurri zuzentzaile hartu behar dituztela nekazaritzako elikagaien kalitatea ikuskapenetan atzemandako akatsak zuzentzeko.

Honako kontuekin lotutako irregulartasunak detektatu dira:


- Etiketak % 52
- Nahitaezko dokumentazioa eta administrazio-erregistroak % 22
- Trazabilitatea % 9
- Bestelakoak (eduki efektiboa, kalitate komertziala) % 17



2016. urtean 356 ikuskapen egin ziren nekazaritzako elikagaien salerosketako kalitatea aztertzeko: horietatik 339 nekazaritzako elikagaien salerosketako kalitatea kontrolatzeko urteroko planaren barruan, eta gainerako 17 planifikatu gabeak. Nekazaritzako elikagaien salerosketako kalitatea kontrolatzeko programa ofizialaren barruan, 2016an sei zigor jarri ziren, eta isunak, guztira, 41.308 eurokoak izan ziren. Ongarrien salerosketako kalitatea kontrolatzeko lanean, 12 ikuskapen egin ziren, eta 1.457T laginetarako bolumenaren erakusgarri, 21 lagin hartu ziren.

Hona elikagaien salerosketako kalitatea kontrolatzeko egindako ikuskapenak, gaika:

• **ERALDATUTAKO PRODUKTUAK**



• **ERALDATU GABEKO PRODUKTUAK**

